



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 25a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da plan bat presta eta abian jar dezan Nafarroa osoan pediatriaren estaldura segurtatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen Ekonomikoaren Legearen aldaketa bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskolatzeari buruzko araudia alda dezan, halako moduz non lehentasuna emanen zaion ikastetxea ikasleak bizi diren lekutik gertu egoteari. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia eta Ogasun Departamentua moderniza dezan, teknologia digitalak erabiltzearen bidez. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazioa eman dezan Next Generation delakoaren barruko finantzaketa-prozesuan baloratutako proiektuei buruz. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akusazio partikular gisa ager dadin, kaltetun bezala, Nafarroako Gobernuko kontseilari ohi Manu Ayerdi Olaizolaren aurka irekitako auzian. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Rifeko Gerra gogoratzeko ekitaldiak antola ditzan eta Memoriaren Institutuaren bidez ikerketa bat egin dezan Rifeko gerran nafarrek izandako parte-hartzeari buruz. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak ezetsi du (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Ponentzia bat sortzeko erabakia, Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat arau-esparru egokiena zein den aztertzeko, banku-fundazioa izateari uzten dionean. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko-ko, eta Barneko Batzordeak onetsia (7. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua aldatzea (8. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da plan bat presta eta abian jar dezan Nafarroa osoan pediatriaren estaldura segurtatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da plan bat presta eta abian jar dezan Nafarroa osoan pediatriaren estaldura segurtatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du sei hilabete epean epe labur eta ertainerako plan bat modu parte-hartzailan presta eta abiaraz dezan, pediatriako estaldura Nafarroa osoarako ziurtatzeko. Planak gutxienez ondoko neurriak jasoko ditu:

a. Osasun Ministerioa premiatzea BAME lanpostuak gehitu ditzan eta administrazioetan Lan Eskaintza Publikorako deialdiak egiteko murrizketak eta ordezte-tasa desagerraraz ditzan.

b. Lan eskaintza publikoa antolatzea, pediatria arloko egungo zerbitzu-premiei erantzuteko nahikoak diren lanpostuena.

c. Iraupen luzeko egitura-kontratuak lanpostu huts bihurtzea eta aldi baterako administrazio-kontratuak iraupen luzeagoko kontratu bihurtzea, betetzen zailak diren landa-eremuko postuetarako. Postu horietarako hobariak ezartzea, profesionalki erakargarriagoak izan daitezen.

d. Pediatriako irakaskuntza-unitate berriak sortzea Nafarroako Ospitalegunean, arlo anitzetako profesionalen osatuak, barneko mediku egoilia-

rrentzako prestakuntza-postuen kopurua handitu ahal izateko.

e. NUPen "Pediatriako Aditua" titulazio bat jartzea, halako moduz non Nafarroako osasungintzan nahikoa langile egonen baita, haren premietara egokituak.

f. Arlo anitzeko prestakuntza-ikastaro bat garatzea, arreta pediatrikoa eskaini behar duten mediku eta erizainen ezagutza-hutsuneak betetzeko, lanpostuak pediatriako espezialistekin betetzeko ezinezkoa den kasuetan. Aipatu ikastaroa Oinarrizko Osasun Laguntzan funtsezkoak diren prebentzio-zertzeladak jaso beharko ditu.

g. Pediatriako erizain espezializatuak jartzea pixkanaka, pediatriako lanpostuetan hiru urte baino gehiagoko esperientzia duten erizainak gaituz eginkizun eta trebetasun horiek gauzatzeko. Espezialitatea edo esperientzia nahikorik bermatzea ezinezkoa denean, profesional berriei lanposturako prestakuntza berariazkoa emanen zaie jarduera hasi baino lehen, sartuko den langileak eta aterako denak hilabete batez jarduera partekatuz. Hori ezinezkoa bada, bestelako aukerak bilatuko dira.

h. Pediatriako espezialitatea ez duten medikuek betetako lanpostuetan, erizaintza pediatriko langileria indartzea lehenengo sei hilabeteetan.

i. Berrikustea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak haur osasuntsuaren arreta dela eta proposatzen duen jarduna eta erizaintzak pediatrian izan beharreko eginkizuna.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen Ekonomikoaren Legearen aldaketa bat presta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen Ekonomikoaren Legearen aldaketa bat presta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onetsi zuen abenduaren 26ko 28/1990

Legearen aldaketa bat presta dezan, Estatuako zoriguztien interesak eta amortizazio-kuotak Nafarroak bereganatu gabeko kargatzat jotzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurreko apartatuan adierazitako aldaketan adierazpen egokiak erants ditzan, Estatuak europar zor mankomunatua itzultzeko eta horren interesak ordaintzeko pairatzen dituen zamek Ekarpenaren kalkularen gainean izan lezaketan inpaktuari buruzkoak".

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskolatzeari buruzko araudia alda dezan, halako moduz non lehenetsuna emanen zaion ikastetxea ikasleak bizi diren lekutik gertu egoteari.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskolatzeari buruzko araudia alda dezan, halako moduz non lehenetsuna emanen zaion ikastetxea ikasleak bizi diren lekutik gertu egoteari".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskolatzeari buruzko araudia halako moduz alda dezan non eskolatzeari buruzko araudia alda dezan non lehenetsuna emanen zaion ikastetxea ikasleak bizi diren lekutik gertu egoteari".

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du irakaskuntza publikoaren garapena bultzatu dezan, halako moduan non onartu egingen baititu bizirik den herri edo auzoko ikastetxe publikoan

eskolatzeko eskari guztiak, eta familiek hautatutako hizkuntza-ereduan; hartara, ikastetxe publikoetan gehitu beharreko eskola-unitate guztiak gehituko ditu, eskaeraren ehuneko ehun asetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du araudi-esparrua gara dezan, beharrezkoa eta behar adinakoa dena erlijioaren eta horren alternatibaren irakaskuntzaren gehieneko eskola-orduen kopurua izan dadin minimotzat ezartzen dena, aginduzko gisa, haur, lehen eta bigarren hezkuntzari eta batxilergoari buruzko estatu-mailako oinarritzeko araudian.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du erretira ditzan sexuagatik ikasleak bereizi/banantzeari eusten dioten ikastetxe itunduekiko hezkuntza-kontzertuak".

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia eta Ogasun Departamentua moderniza dezan, teknologia digitalak erabiltzearen bidez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia eta Ogasun Departamentua moderniza dezan, teknologia digitalak erabiltzearen bidez".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ogasuneko Departamentuaren eguneratze teknologikorako egutegi bat ezartzera, bai softwarean bai hardwarean, sistema guztien modernizazioan inbertituz, bereziki zaharkitze teknologikorako arrisku handia duten sistemetan.

2. Kredentzialen sistemak (identifikazioa) erabiltzaileen erabilera hedatuko sistemetara egokitzea, hala nola CI@ave eta ziurtagiri digitala izenekoak, pixkanaka eta lehenbailehen NAN+PIN sistema zaharkitua eta kaltebera ezabatuz. Era berean, aitorten biometrikoa sartzen joatea departamentuko eragiketa guztietan, Estatuko eta Europako legeriak eskaintzen dituen bermeekin.

3. Foru Ogasuna "zero paper" ereduaren arabera eraldatzen jarraitzea, guztia urrutitik eta formatu digitalean egiteko aukera emanaz.

4. Konputaziorako eta biltegitzerako gaitasuna handitzea, batez ere zerbitzu handiko egunean, prestazioa eteteko arriskurik egon ez dadin.

5. Pandemia betean inauguratu zen "laguntzaile birtualen" zerbitzua finkatzea eta handitzea, hartara herritarrei laguntza pertsonalizatua ematearen aldeko apustua eginez, non dauden alde batera utzita eta aurrez aurreko beharrezko arretari kalterik egin gabe.

6. Adimen artifizialaren, big dataren eta datuen ingeniartzaren erabilera ustiatzea iruzurraren aurka borrokatzeko, zergadunarentzako laguntza eta Ogasunaren eskura dauden zerga-kontrolerako bitartekoak hobetuz.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ekonomia eta Ogasun Departamentuko langileria-entzako eta oro har herritarrentzako prestakuntzarako eta gaikuntza teknologikorako plan bat ezar dezan, tresna digitalen erabilerari buruzko ezagutzak eta trebetasunak bereganatzeari bultzada ematearren".

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazioa eman dezan Next Generation delakoaren barruko finantzaketa-prozesuan baloratutako proiektuei buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazioa eman dezan Next Generation delakoaren barruko finantzaketa-prozesuan baloratutako proiektuei buruz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hileroko Parlamentuan ager

dadin, mozio hau onesten den egunetik, Foru Araubidearen Batzordean edo Parlamentuan horretarako eratzen den beste batean, Next Generation funtsetara aurkeztu nahi diren edo aurkezten diren proiektuen kudeaketari buruzko azalpenak emateko. Eman beharreko informazioaren barruan, nahitaez azaldu beharko da erabakiak zein organok hartuko dituen, zein proiektu aurkeztuko diren eta zein ez Funtzen finantzaketa lortzeko, zer pertsonak hartuko dituzten erabakiak eta zein irizpide aukeratu diren horretarako”.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akusazio partikular gisa ager dadin, kaltetun bezala, Nafarroako Gobernuko kontseilari ohi Manu Ayerdi Olaizolaren aurka irekitako auzian.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko otsailaren 18an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akusazio partikular gisa ager dadin, kaltetun bezala, Nafarroako Gobernuko kontseilari ohi Manu Ayerdi Olaizolaren aurka irekitako auzian”. Mozioa Juan

Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko otsailaren 16ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Rifeko Gerra gogoratzeko ekitaldiak antola ditzan eta Memoriaren Institutuaren bidez ikerketa bat egin dezan Rifeko gerran nafarrek izandako parte-hartzeari buruz.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2021eko otsailaren 19an egindako bieran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Rifeko Gerra gogoratzeko ekitaldiak antola ditzan eta Memoriaren Institutuaren bidez ikerketa bat egin dezan Rifeko gerran nafa-

rrek izandako parte-hartzeari buruz”. Mozioa Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko urtarrilaren 19ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ponentzia bat sortzeko erabakia, Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat arau-esparru egokiena zein den aztertzeko, banku-fundazioa izateari uzten dionean.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNeko, FUNTZIO PUBLIKOKO, ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin erabaki bat, zeinaren bidez ponentzia bat sortzen baita “Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat arau-esparru egokiena zein den aztertzeko, banku-fundazioa izateari uzten dionean”. Aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak onetsi zuen 2021eko otsailaren 23an egindako bileran. Hona erabakiaren testua:

“Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordearen baitan ponentzia bat sortzea Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat arau-esparru egokiena zein den aztertzeko, banku-fundazioa izateari uzten dionean.

2. Epe bat ematea, 2021eko otsailaren 25eko 17:30ak artekoa, talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu ponentziarako ordezkaria izenda dezan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordez arituko dena.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du ponentzia zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

4. Azterlana egiteko epea ponentzia eratu eta 2 hilabetera bukatuko da. Epe hori luzatzen ahalko da.

5. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lantaldearen osaerari eta eraketari buruz”.

Iruñean, 2021eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua aldatzeko proposamena, Nafarroako arartekoak igorritakoa, eta Parlamentuko legelari nagusiak proposamen hori dela-eta eginitxo txostena, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduko 20. artikulua 3. apartatua aldatzea. Honako testu hau izanen du:

"3. Bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bitartekari lanak egiten ahalko ditu, eta bitartekaritzarako sarbidea eta haren administrazioa ahalbidetuko ditu, bai eta bitartekariak izendatu ere.

Erakundeak dituen eginkizunetatik bitartekaritzarekin zerikusia dutenak gainerakoetatik bereizirik egonen dira. Bitartekaritza eginkizun horien egikaritzea hobeki antolatzeko, Nafarroako arartekoak eremu funtzional bat sortu ahalko du, "bitartekaritza zerbitzua" izeneko, aholkulari batek kudeatuko duena.

Bitartekaritzatzat ulertuko da gatazkak konpontzeko baliabidea, zeinean bi alde edo gehiago ahaleginduko diren berez adostasun batera iristen, bitartekari baten esku-hartzearekin.

Bitartekaritzak, edonola ere, ondoko printzipioei jarraituko die bere fase guztietan: boron-

datezkotasuna, aldeen aukera berdintasuna, erakundearen inpartzialtasuna, bitartekariaren neutraltasuna eta prozeduraren eta erabilitako dokumentazioaren konfidentzialtasuna.

Bitartekaritza hasiko da hala eskatzen denean eta aldeek hura hasteko adostasuna agertzen dutenean.

Bitartekaritza administratiboa administrazio publiko eskudunaren eta herritarren kolektiboen, beste administrazio edo entitate publiko batzuen edota pertsona fisiko edo juridiko baten artean garatuko da; azken kasuan, hala izanen da erakundeak uste badu gaiak garrantzia duela interes orokor, sozial edo komunitarioarentzat.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bitartekaritza proposatu ahalko die aldeei, gaiaren edukia ikusirik egoki irizten badio.

Lortzen diren akordioek kasu bakoitzean ordenamendu juridikoak zehazten dituen ondorioak izanen dituzte.

Eginkizun horiek betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak kanpoko bitartekarien laguntza jaso ahalko du, bai eta bitartekaritzarako elkarrekin hitzarmenak sinatu ere".

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Onetsitako aldaketak indarra hartuko du aldizkari hartan argitaratu eta biharamunean.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias